44b) Sean nombrados para cualquier cargo de carácter político que sea incompatible con el ejercicio de la función pública.
44c) Ocupando una plaza de plantilla dotada presupuestariamente, desempeñen un puesto de trabajo reservado a funcionario o les haya sido conferida una comisión de servicios.
44d) Cumplido el período de suspensión de funciones o concluido el de excedencia para atender al cuidado de los hijos, el funcionario solicite el reingreso y no lo pueda obtener por falta de vacante.

40 EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA. HONAKO HAU DIO DATU PERTSONALEN ZIRKULAZIO ASKEARI BURUZ EUROPAR BATASUNEAN:

40a) Datu pertsonalen zirkulazio askea ezingo da murriztu edo debekatu datu pertsonalen tratamendua dela-eta pertsona fisikoak babesteko arrazoiengatik.
40b) Batasunaren barruko datu pertsonalen zirkulazio askea murriztu eta debekatu ahal izango da datu pertsonalen tratamendua dela-eta pertsona fisikoak babesteko arrazoiengatik.
40c) Batasunaren barruko datu pertsonalen zirkulazio askea murriztu ahal izango da, baina ez debekatu, datu pertsonalen tratamendua dela-eta pertsona fisikoak babesteko arrazoiengatik.
40d) Batasunaren barruko datu pertsonalen zirkulazio askea beti dago murriztua datu pertsonalen tratamendua dela-eta pertsona fisikoak babesteko arrazoiengatik, eta bereziki arrazoitutako kasuetan, debekatu ahal izango da.

41 NOLA BIDERATZEN DA FUNTZIONARIOEN ADMINISTRAZIO-KARRERA?

41a) Goi-mailako beste kidego batzuetara edo talde bereko kidegoetara barne-sustapena izateko aukeraren bidez bakarrik.
41b) Izendapen askearen bidez bakarrik.
41c) Lehiaketa bidez bakarrik.
41d) Gradu pertsonalaren bidez eta lehiaketa edo izendapen askearen bidez bestelako lanpostuetara aldatzeko aukera emanez, edota goi-mailako beste kidego batzuetara edo talde bereko kidegoetara barne-sustapena izateko aukeraren bidez.

42 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOA PRINTZIPIO HAUEN ARABERA ANTOLATZEN DA:

42a) Ekonomia eta urritasuna interes orokorreko kudeaketan.
42b) Aurrekontu-egonkortasuna eta -urritasuna eginkizunak betetzeko, eta ekonomia interes orokorrak kudeatzeko.
42c) Inpartzialtasuna eta profesionaltasuna eginkizunak betetzeko, eta eraginkortasuna eta objektibotasuna interes orokorrak kudeatzeko.
42d) Zorpetzea interes orokorrak kudeatzeko.

43 GRADU PERTSONALA LORTZEKO, ZENBAT DENBORA ARITU BEHAR DA DAGOKION MAILAKO LANPOSTU BATEAN EDO GEHIAGOTAN?

43a) Urte betez.
43b) Hiru urtez jarraian edo bost urtez, etenik egonez gero.
43c) Lanean hasten den egunetik.
43d) Karrera profesional osoan eta erretiro-pentsioan ditu ondorioak.

44 NOIZ EGONGO DIRA FUNTZIONARIOAK ZERBITZU AKTIBOAN?

44a) Eusko Legebiltzarreko edo lurralde historikoetako batzar nagusietako kide direnean.
44b) Funtzio publikoa betetzearekin bateraezina den edozein kargu politikotarako izendatzen dituztenean.
44c) Aurrekontu-zuzkidura duen plantillako lanpostu bat betetzen ari direla, funtzionarioentzat gordetako lanpostu bat betetzen dutenean edo zerbitzu-eginkizunetan jarduten dutenean.
44d) Eginkizun-etenaldia edo seme-alabak zaintzeko eszedentzia-aldia amaitu ondoren, funtzionarioak lanera itzultzea eskatu eta ezin duenean lortu lanpostu hutsik ez dagoelako.

45 LOS FUNCIONARIOS EN EXPECTATIVA DE DESTINO:

45a) No percibirán ningún tipo de retribución.
45b) Percibirán las retribuciones básicas, el complemento de destino del grado personal que les corresponda y el 50 por 100 del complemento específico del puesto que desempeñaban al pasar a esta situación.
45c) Percibirán sólo las retribuciones básicas del puesto que desempeñaban al pasar a esta situación. Los complementos únicamente se percibirán en la situación de servicio activo.
45d) Percibirán sólo el complemento de destino del grado personal que les corresponda y el 50 por 100 del complemento específico del puesto que desempeñaban al pasar a esta situación. Las retribuciones básicas únicamente se percibirán en la situación de servicio activo.

46 A LOS EFECTOS DE LA LEY 4/2005, DE IGUALDAD ENTRE MUJERES Y HOMBRES, SE CONSIDERA UNA REPRESENTACIÓN EQUILIBRADA EN LOS ÓRGANOS ADMINISTRATIVOS PLURIPERSONALES CUANDO:

46a) Los dos sexos están representados al menos al 40%.
46b) Los dos sexos están representados al menos al 50%.
46c) Las mujeres ocupan la mitad más uno de la totalidad de los puestos del órgano.
46d) Miembros de grupos sociales desfavorecidos ocupan al menos dos tercios de la totalidad de los puestos del órgano.

47 EN MATERIA DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES, CORRESPONDEN A LOS AYUNTAMIENTOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, INDIVIDUALMENTE O A TRAVÉS DE LAS MANCOMUNIDADES DE QUE FORMEN PARTE O QUE SE CONSTITUYAN A LOS FINES DE LA LEY, ENTRE OTRAS:

47a) La competencia legislativa
47b) El desarrollo normativo
47c) Ejecución de medidas de acción positiva en el ámbito local.
47d) La potestad sancionadora.

48 EL IMPACTO EN FUNCIÓN DEL GÉNERO.

48a) Antes de acometer la elaboración de una norma o acto administrativo, el órgano administrativo que lo promueva ha de evaluar el impacto potencial de la propuesta en la situación de las mujeres y en los hombres como colectivo.
48b) La primera evaluación del impacto en función del género se llevará a cabo por el órgano administrativo que propuso la norma una vez redactado el proyecto.
48c) La primera evaluación del impacto en función del género se llevará a cabo por el órgano administrativo que propuso la norma en el momento de la ejecución, cuando la norma ya está vigente y se pueden comprobar sus efectos.
48d) La primera evaluación del impacto en función del género se llevará a cabo por el órgano administrativo que propuso la norma al cumplirse un año de su entrada en vigor.

49 LA DELEGACIÓN DE COMPETENCIAS PROPIAS EN LA LEY 2/2016, DE INSTITUCIONES LOCALES DE EUSKADI.

49a) La Comunidad Autónoma podrá delegar el ejercicio de sus competencias propias en los municipios o en otras entidades locales.
49b) La Comunidad Autónoma en ningún caso podrá delegar el ejercicio de sus competencias propias.
49c) Los municipios no podrán ejercer competencias propias de otras administraciones.
49d) La delegación de competencias propias está expresamente prohibida para todas las administraciones públicas en la Ley 2/2016 de instituciones locales de Euskadi

45 DESTINOAREN ZAIN DAUDEN FUNTZIONARIOAK.

45a) Ez dute inolako ordainsaririk jasoko.
45b) Oinarrizko ordainsariak jasoko dituzte, dagokien gradu pertsonalaren destino-osagarria eta egoera horretara pasatzean betetzen zuten lanpostuari dagokion osagarri espezifikoaren 100eko 50a.
45c) Egoera horretara pasatzean betetzen zuten lanpostuari dagozkion oinarrizko ordainsariak baino ez dituzte jasoko. Osagarriak zerbitzu aktiboko egoeran baino ez dira jasoko.
45d) Dagokien gradu pertsonalaren destino-osagarria baino ez dute jasoko eta egoera horretara pasatzean betetzen zuten lanpostuari dagokion osagarri espezifikoaren 100eko 50a. Oinarrizko ordainsariak zerbitzu aktiboko egoeran baino ez dira jasoko.

46 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 4/2005 LEGEAREN ONDORIOETARAKO, NOIZ DAGO ORDEZKARITZA OREKATUA PERTSONA ANITZEKO ADMINISTRAZIO-ORGANOETAN?

46a) Sexu biek, gutxienez, % 40ko ordezkaritza dutenean.
46b) Sexu biek, gutxienez, % 50eko ordezkaritza dutenean.
46c) Organoko lanpostu guztien erdia gehi bat emakumeak direnean.
46d) Gizarte-talde ahuletako kideek organoko lanpostu guztien bi heren betetzen dituztenean, gutxienez.

47 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALEK EGINKIZUN HAUEK BETE BEHAR DITUZTE, BAI BANAKA, BAI PARTAIDE DIREN EDO LEGE HONEN XEDEETARAKO ERATZEN DITUZTEN MANKOMUNITATEEN BIDEZ:

47a) Legegintzako eskumena.
47b) Arau-garapena.
47c) Ekintza positiboko neurriak gauzatzea toki-esparruan.
47d) Zehatzeko ahala.

48 GENEROAREN ARABERAKO ERAGINA.

48a) Administrazio-arau edo egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina.
48b) Generoaren araberako eraginaren lehen ebaluazioa araua proposatu zuen administrazio-organoak egingo du, proiektua idatzi ondoren.
48c) Generoaren araberako eraginaren lehen ebaluazioa araua proposatu zuen administrazio-organoak egingo du araua gauzatzeko unean, araua indarrean dagoenean eta haren ondorioak egiazta daitezkeenean.
48d) Generoaren araberako eraginaren lehen ebaluazioa araua proposatu zuen administrazio-organoak egingo du, indarrean sartu eta urte betera.

49 ESKUMEN PROPIOAK DELEGATZEA EUSKADIKO TOKI-ERAKUNDEEI BURUZKO 2/2016 LEGEAREN ARABERA.

49a) Euskal Autonomia Erkidegoak udalerriei edo bestelako toki-erakundeei delegatu ahal izango dizkie dagozkion eskumenak.
49b) Euskal Autonomia Erkidegoak ezin izango ditu inola ere delegatu dagozkion eskumenak.
49c) Udalerriek ezin izango dituzte baliatu beste administrazio batzuei dagozkien eskumenak.
49d) Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak espresuki debekatzen die administrazio publiko guztiei dagozkien eskumenak delegatzea.

50 LA AUTONOMÍA DE LOS MUNICIPIOS.

50a) La Constitución garantiza la autonomía de los municipios y éstos gozarán de personalidad jurídica plena.
50b) La Constitución garantiza la capacidad de organización de los municipios, pero sólo garantiza la autonomía de las Comunidades Autónomas y del propio Estado.
50c) La Constitución garantiza la capacidad de actuación de los municipios, pero sólo gozarán de personalidad jurídica plena las Comunidades Autónomas.
50d) La Constitución somete la autonomía de los municipios a la supervisión del Estado, de la Comunidad Autónoma y de la Diputación Foral correspondiente, quienes fiscalizarán todas sus actuaciones.

51 LOS ALCALDES SERÁN ELEGIDOS POR:

51a) Los partidos políticos o por los vecinos.
51b) La Diputación Foral correspondiente.
51c) Los Concejales o por los partidos políticos.
51d) Los Concejales o por los vecinos.

52 LA HACIENDA DE LAS ENTIDADES LOCALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA ESTARÁ CONSTITUIDA ENTRE OTROS RECURSOS POR LOS INGRESOS PROCEDENTES DE:

52a) Su patrimonio y demás de Derecho Privado.
52b) Comisiones por la adjudicación de contratos públicos.
52c) La anulación de multas de la Policía Municipal.
52d) Legalizaciones de infracciones urbanísticas declaradas ilegales por sentencia judicial firme.

53 LOS BENEFICIOS FISCALES.

53a) Las Entidades Locales, en uso de sus facultades y en el marco de las Normas Forales, podrán conceder beneficios fiscales en materia de sus propios tributos, asumiéndolos con cargo a sus propios presupuestos.
53b) Las Entidades Locales no podrán conceder beneficios fiscales en materia de sus propios tributos, salvo autorización expresa para cada caso de la Hacienda General de la Comunidad Autónoma.
53c) Las Entidades Locales no podrán conceder beneficios fiscales con cargo a sus propios presupuestos, salvo autorización expresa para cada caso de la Agencia Tributaria.
53d) La concesión de beneficios fiscales en materia de sus propios tributos está expresamente prohibido para las entidades locales en la Norma Foral 9/2005, de Haciendas Locales.

54 LOS RECARGOS E INTERESES DE DEMORA. EN LA EXACCIÓN DE LOS TRIBUTOS LOCALES Y DE LOS RESTANTES INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO DE LAS ENTIDADES LOCALES, LOS RECARGOS E INTERESES DE DEMORA SE EXIGIRÁN Y DETERMINARÁN:

54a) De acuerdo con lo previsto en cada municipio en sus propias normas y ordenanzas.
54b) En los mismos casos, forma y cuantía que para los tributos de la Hacienda Foral.
54c) De acuerdo con las normas establecidas por la Agencia Tributaria.
54d) De acuerdo con las normas establecidas por EUDEL para todos los municipios de la Comunidad Autónoma.

50 UDALERRIEN AUTONOMIA.

50a) Konstituzioak udalerrien autonomia bermatzen du eta nortasun juridiko osoa izango dute.
50b) Konstituzioak udalerrien antolamendu-gaitasuna bermatzen du, baina autonomia-erkidegoen eta Estatuaren autonomia baino ez du bermatzen.
50c) Konstituzioak udalerrien jarduteko gaitasuna bermatzen du, baina autonomia-erkidegoek baino ez dute izango nortasun juridiko osoa.
50d) Konstituzioak udalerrien autonomia Estatuaren, autonomia-erkidegoaren eta dagokion foru-aldundiaren ikuskaritzaren mende jartzen du, eta haiek ikuskatuko dituzte udalerrien jarduera guztiak.

51 NORK AUKERATUKO DITU ALKATEAK?

51a) Alderdi politikoek edo auzotarrek.
51b) Dagokion foru-aldundiak.
51c) Zinegotziek edo alderdi politikoek.
51d) Zinegotziek edo auzotarrek.

52 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI-ERAKUNDEEN OGASUNA, BESTE BALIABIDE BATZUEN ARTEAN, HONAKO HAUETATIK DATOZEN DIRU-SARREREK OSATUKO DUTE:

52a) Beren ondaretik eta zuzenbide pribatuko gainerakoetatik etorritakoek.
52b) Kontratu publikoak esleitzeko komisioetatik etorritakoek.
52c) Udaltzaingoaren isunak deuseztatzetik etorritakoek.
52d) Epai judizial irmoaren bidez legez kontrakotzat jotako hirigintzako arau-hausteak legeztatzetik etorritakoek.

53 ZERGA-ONURAK.

53a) Toki erakundeek, beren ahalmenak erabiliz eta foru arauen mugen baitan, zerga-onurak eman ahal izango dituzte beren tributu propioen arloan, baldin eta beren aurrekontuen kontura ematen badituzte.
53b) Toki-erakundeek ezin izango dute zerga-onurarik eman beren tributu propioen arloan, kasu bakoitzerako Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berariazko baimena izan ezean.
53c) Toki-erakundeek ezin izango dute zerga-onurarik eman beren aurrekontuen kontura, Zerga Agentziaren berariazko baimena izan ezean.
53d) Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauak berariaz debekatzen die toki-erakundeei zerga-onurak ematea beren tributu propioen arloan.

54 ERREKARGUAK ETA BERANDUTZE-INTERESAK. TOKI-TRIBUTUEN ETA TOKI-ERAKUNDEEN ZUZENBIDE PUBLIKOKO GAINERAKO DIRU-SARREREN ORDAINARAZPENEAN, ERREKARGUAK ETA BERANDUTZE-INTERESAK ZEREN ARABERA ESKATUKO ETA ZEHAZTUKO DIRA?

54a) Udalerri bakoitzak bere arau eta ordenantzetan aurreikusitakoaren arabera.
54b) Foru Ogasunaren tributuen kasu, forma eta zenbateko berberetan.
54c) Zerga Agentziak ezarritako arauen arabera.
54d) EUDELek Autonomia Erkidegoko udalerri guztietarako ezarritako arauen arabera.

55 SEGÚN LA NORMA FORAL 9/2005, LOS ACTOS DE APLICACIÓN DE LOS TRIBUTOS, DE IMPOSICIÓN DE SANCIONES Y DE LOS RESTANTES INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO DE LAS HACIENDAS LOCALES SÓLO SERÁN SUSCEPTIBLES DE SER IMPUGNADOS EN:

55a) Reposición ante el mismo órgano que haya dictado el acto recurrido.
55b) Alzada ante el mismo órgano que haya dictado el acto recurrido.
55c) Reposición ante el órgano superior al que haya dictado el acto recurrido.
55d) Reclamación económico-administrativa ante el mismo órgano que haya dictado el acto recurrido.

56 SON SUJETOS PASIVOS DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA:

56a) Las personas físicas o jurídicas y las Entidades que utilizan habitualmente el vehículo independientemente de quien es su titular y así lo certifique mediante declaración jurada.
56b) Las personas físicas o jurídicas y las Entidades cuyo nombre conste como tomador del seguro obligatorio.
56c) Las personas físicas o jurídicas y las Entidades a cuyo nombre conste el vehículo en el permiso de circulación.
56d) Las personas físicas cuyo nombre consta en el seguro obligatorio como conductor habitual del vehículo.

57 SON ELEMENTOS DEL MUNICIPIO:

57a) La policía local, los partidos políticos y la organización.
57b) La casa consistorial, la administración y la policía local.
57c) El padrón, la policía local y el alcalde.
57d) El territorio, la población y la organización.

58 EL TÉRMINO MUNICIPAL ES:

58a) El territorio en que el ayuntamiento ejerce sus competencias.
58b) La parte del territorio declarada como urbana o urbanizable.
58c) La parte del territorio que se puede calificar como terrenos comunales.
58d) La parte del territorio que es propiedad del ayuntamiento.

59 EL PADRÓN MUNICIPAL ES EL REGISTRO ADMINISTRATIVO DONDE:

59a) Constan los vecinos de un municipio, sus datos constituyen prueba de la residencia en el municipio y del domicilio habitual en el mismo y las certificaciones que de dichos datos se expidan tendrán carácter de documento público y fehaciente para todos los efectos administrativos.
59b) Constan los vecinos de un municipio, pero sus datos tienen carácter meramente estadístico; no constituyen prueba de la residencia.
59c) Consta el número de vecinos con residencia habitual o temporal de un municipio que deben estar actualizados para que las estadísticas obtenidas tengan carácter oficial. Pero en ningún caso recogen datos personales, por lo que no prueban la residencia en un municipio.
59d) Constan los vecinos de un municipio, pero no emite certificaciones de los datos que contiene, ni aun cuando el interesado solicite sus propios datos.

55 9/2005 FORU ARAUAREN ARABERA, TRIBUTUAK APLIKATZEKO, ZEHAPENAK EZARTZEKO ETA TOKI OGASUNEN ZUZENBIDE PUBLIKOKO GAINERAKO SARRERAK BIDERATZEKO EGINTZEN AURKA EGITEKO MODU BAKARRA DAGO. ZEIN DA?

55a) Berraztertzeko errekurtsoa jarri egintza errekurritua eman zuen organo berari.
55b) Gora jotzeko errekurtsoa jarri egintza errekurritua eman zuen organo berari.
55c) Berraztertzeko errekurtsoa jarri egintza errekurritua eman zuen organoaren goragoko organoari.
55d) Erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri egintza errekurritua eman zuen organo berari.

56 TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN SUBJEKTU PASIBOAK DIRA HONAKO HAUEK:

56a) Ibilgailua erabili ohi duten pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak, titularra edozein dela ere, baldin eta zinpeko adierazpen bidez egiaztatzen badute.
56b) Nahitaezko aseguruan hartzaile gisa ageri diren pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak.
56c) Zirkulazio-baimenean ageri diren pertsona fisiko edo juridikoak eta entitateak.
56d) Nahitaezko aseguruan ibilgailuaren ohiko gidari gisa ageri diren pertsona fisikoak.

57 HONAKO HAUEK DIRA UDALERRIAREN ELEMENTUAK:

57a) Udaltzaingoa, alderdi politikoak eta antolaketa.
57b) Udaletxea, administrazioa eta udaltzaingoa.
57c) Errolda, udaltzaingoa eta alkatea.
57d) Lurraldea, biztanleria eta antolaketa.

58 ZER DA UDAL MUGARTEA?

58a) Udalak bere eskumenak burutzeko hartzen duen lurraldea.
58b) Hiritar edo urbanizagarri deklaratutako lurraldearen zatia.
58c) Herri-lur gisa kalifika daitekeen lurraldearen zatia.
58d) Udalaren jabetzakoa den lurraldearen zatia.

59 UDAL-ERROLDA ADMINISTRAZIO-ERREGISTRO BAT DA. ZER JASOTZEN DA BERTAN?

59a) Udalerriko auzotarrak agertzen dira jasota. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira. Zehaztasun horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira administrazio-ondorio guztietarako.
59b) Udalerriko auzotarrak agertzen dira jasota, baina zehaztasunak estatistikoak baino ez dira; ez dira bizilekuaren froga.
59c) Udalerri batean ohiko edo aldi baterako bizilekua duten auzotarren kopurua ageri da, eta datuak eguneratuta egon behar dute, lortutako estatistikak ofizialak izan daitezen. Ez da datu pertsonalik jasotzen, eta, beraz, ez dira bizilekuaren froga.
59d) Udalerriko auzotarrak agertzen dira jasota, baina ez du datuen ziurtagiririk ematen, ezta interesdunak bere datuak eskatzen dituenean ere.

60 LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL:

60a) Existe en todos los municipios con población superior a 100.000 habitantes y en los de menos, cuando así lo acuerde el órgano de gobierno de la Comunidad Autónoma.
60b) Existe en todos los municipios.
60c) Existe en todos los municipios con población superior a 5.000 habitantes y en los de menos, cuando así lo disponga su reglamento orgánico o así lo acuerde el Pleno de su ayuntamiento.
60d) Es un órgano potestativo. Sólo existe cuando así lo disponga su reglamento orgánico o así lo acuerde el Pleno de su ayuntamiento.

61 EL PLENO, INTEGRADO POR:

61a) Un concejal de cada grupo político, es presidido por el Alcalde
61b) Todos los Concejales, es presidido por el concejal de mayor edad.
61c) Todos los Concejales, es presidido por el Alcalde
61d) Los Concejales que pertenecen al equipo de gobierno municipal, es presidido por el secretario.

62 ES COMPETENCIA DEL ALCALDE:

62a) Dirigir, inspeccionar e impulsar los servicios y obras municipales.
62b) La aprobación del reglamento orgánico y de las ordenanzas.
62c) El control y la fiscalización de los órganos de gobierno.
62d) La aprobación inicial del planeamiento general.

63 LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL SE INTEGRA:

63a) Exclusivamente por Concejales en número no superior al quinto del número legal de los mismos.
63b) Por el Alcalde y un número de Concejales no superior al tercio del número legal de los mismos, nombrados y separados libremente por aquél, dando cuenta al Pleno
63c) Por todos los Concejales que pertenecen al equipo de gobierno.
63d) Por el Alcalde, el secretario y concejal por cada grupo político.

64 EL ÓRGANO DE MÁXIMA REPRESENTACIÓN POLÍTICA DE LOS CIUDADANOS EN EL GOBIERNO MUNICIPAL ES:

64a) El Alcalde.
64b) El Pleno.
64c) El concejal.
64d) La junta de portavoces.

65 CORRESPONDEN AL PLENO LAS SIGUIENTES ATRIBUCIONES:

65a) Dirigir el gobierno y la administración municipal.
65b) Nombrar y separar libremente a los miembros de la Junta de Gobierno.
65c) La gestión económico-financiera y presupuestaria.
65d) La aprobación y modificación de las ordenanzas y reglamentos municipales

66 SE REQUERIRÁ EL VOTO FAVORABLE DE LA MAYORÍA ABSOLUTA DEL NÚMERO LEGAL DE MIEMBROS DEL PLENO, PARA LA ADOPCIÓN DEL ACUERDO REFERIDO A:

66a) La delimitación y alteración del término municipal.
66b) La determinación de los recursos propios de carácter tributario.
66c) La aprobación de los presupuestos.
66d) La aprobación de la plantilla de personal.

60 TOKIKO GOBERNU BATZARRA:

60a) 100.000 biztanle baino gehiagoko udalerri guztietan dago; biztanle gutxiagokoetan, aldiz, autonomia-erkidegoko gobernu-organo batek hala erabakitzen badu.
60b) Udalerri guztietan dago.
60c) 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerri guztietan dago, baita gutxiagokoetan ere, bertako erregelamendu organikoan hala xedatu edo osoko bilkurak hala erabakitzen badu.
60d) Aukerako organoa da. Erregelamendu organikoak hala xedatzen duenean edo osoko bilkurak hala erabakitzen duenean baino ez da egongo.

61 NORK OSATZEN DU OSOKO BILKURA?

61a) Talde politiko bakoitzeko zinegotzi batek, eta alkatea da buru.
61b) Zinegotzi guztiek osatzen dute, eta zinegotzi zaharrena da buru.
61c) Zinegotzi guztiek osatzen dute, eta alkatea da buru.
61d) Udaleko gobernu-taldeko zinegotziek, eta idazkaria da buru.

62 ALKATEAREN ESKUMENAK DIRA HONAKO HAUEK:

62a) Udal-zerbitzuak eta udal-obrak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
62b) Erregelamendu organikoa eta ordenantzak onartzea.
62c) Gobernu-organoak kontrolatzea eta ikuskatzea.
62d) Plangintza orokorrari hasierako onespena ematea.

63 NORTZUK OSATZEN DUTE TOKIKO GOBERNU-BATZARRA?

63a) Zinegotziek bakarrik, eta horien kopurua ez da izango zinegotzien legezko kopuruaren bostena baino handiagoa.
63b) Alkateak eta legean ezarritako zinegotzi kopuruaren herena baino gehiagokoa ez den zinegotzi-kopuru jakin batek. Alkateak izendatzen eta kentzen ditu askatasunez, eta osoko bilkurari ematen dio horren berri.
63c) Gobernu-taldeko zinegotzi guztiek.
63d) Alkateak, idazkariak eta talde politiko bakoitzeko zinegotzi batek.

64 ZEIN DA HERRITARREK UDAL-GOBERNUAN DUTEN ORDEZKARITZA POLITIKOAREN ORGANO GORENA?

64a) Alkatea.
64b) Osoko Bilkura.
64c) Zinegotzia.
64d) Bozeramaileen batzarra.

65 HONAKO EGINKIZUN HAUEK IZANGO DITU OSOKO BILKURAK:

65a) Udal-gobernua eta udal-administrazioa zuzentzea.
65b) Gobernu-batzarreko kideak izendatu eta kendu askatasun osoz.
65c) Ekonomia, finantzak eta aurrekontuak kudeatzea.
65d) Udal-ordenantzak eta -erregelamenduak onartzea eta aldatzea.

66 OSOKO BILKURAKO KIDEEN LEGEZKO KOPURUAREN GEHIENGO OSOAREN ALDEKO BOTOA BEHAR DA HONAKO GAI HAUEI BURUZKO ERABAKIAK HARTZEKO:

66a) Udal-mugartea zehaztu eta aldatzeari buruzkoak.
66b) Zerga-izaerako baliabide propioak zehazteari buruzkoak.
66c) Aurrekontuak onartzeari buruzkoak.
66d) Langileen plantilla onartzeari buruzkoak.

67 DICTAR BANDOS CORRESPONDE:

67a) Al Alcalde.
67b) Al Pleno.
67c) Al Secretario.
67d) Al Mayor de la Policía Municipal.

68 EL PATRIMONIO DE LAS ENTIDADES LOCALES ESTÁ CONSTITUIDO POR EL CONJUNTO DE:

68a) Bienes, derechos y acciones que les pertenezcan.
68b) Bienes, derechos y acciones que pertenezcan al ayuntamiento y al conjunto de los vecinos.
68c) Bienes que pertenezcan al ayuntamiento y al conjunto de los vecinos. Los derechos no forman parte del patrimonio de las entidades locales.
68d) Las Entidades locales no tienen patrimonio propio.

69 SOBRE LOS BIENES DE LAS ENTIDADES LOCALES.

69a) Los bienes patrimoniales son los destinados a un uso o servicio público.
69b) Los bienes patrimoniales son aquellos cuyo aprovechamiento corresponda al común de los vecinos.
69c) Los bienes patrimoniales se rigen por su legislación específica y, en su defecto, por las normas de Derecho privado.
69d) Las Entidades Locales no tienen bienes patrimoniales, sólo tienen bienes de dominio público o comunales.

70 LAS ENTIDADES LOCALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA, DEBERÁN EXIGIR, ENTRE OTROS Y DE CONFORMIDAD CON LAS NORMAS Y DISPOSICIONES QUE LOS REGULEN, LOS SIGUIENTES IMPUESTOS:

70a) Impuesto sobre Bienes Inmuebles, impuesto sobre Actividades Económicas y el impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.
70b) Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas e Impuesto de Sucesiones.
70c) IVA e Impuesto de Sociedades.
70d) Impuesto sobre el Patrimonio e Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

71 LAS ENTIDADES LOCALES PODRÁN ESTABLECER TASAS POR:

71a) Por la contratación de personal laboral.
71b) Por la adjudicación de contratos sujetos a la Ley de Contratos del Sector Público.
71c) Por la anulación de multas de la Policía Local.
71d) La utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local.

72 LAS ENTIDADES LOCALES NO PODRÁN EXIGIR TASAS, ENTRE OTROS SERVICIOS, POR:

72a) Abastecimiento de aguas en fuentes públicas.
72b) Guardería rural.
72c) Vigilancia especial de los establecimientos que lo soliciten.
72d) Otorgamiento de licencias o autorizaciones administrativas de autotaxis y demás vehículos de alquiler.

67 NORI DAGOKIO BANDOAK EMATEA?

67a) Alkateari.
67b) Osoko bilkurari.
67c) Idazkariari.
67d) Udaltzaingoaren nagusiari.

68 TOKI-ERAKUNDEEN ONDAREA HONAKO HAUEK OSATZEN DUTE:

68a) Dagozkien ondasunek, eskubideek eta akzioek.
68b) Udalaren eta auzotar guztien ondasunek, eskubideek eta akzioek.
68c) Udalaren eta auzotar guztien ondasunek. Eskubideak ez dira toki-erakundeen ondarearen zati.
68d) Toki-erakundeek ez daukate ondare propiorik.

69 TOKI-ERAKUNDEEN ONDASUNEI DAGOKIONEZ.

69a) Ondare-ondasunak dira erabilera edo zerbitzu publikorako erabiltzen direnak.
69b) Ondare-ondasunak dira auzotar guztiei dagozkien aprobetxamenduak dituztenak.
69c) Ondare-ondasunak beren legeria espezifikoaren arabera arautzen dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauen arabera.
69d) Toki-erakundeek ez daukate ondare-ondasunik, jabari publikoko ondasunak edo herri-ondasunak bakarrik.

70 BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI-ERAKUNDEEK, BESTEAK BESTE, HONAKO ZERGA HAUEK ESKATU BEHARKO DITUZTE, ZERGA HORIEK ARAUTZEN DITUZTEN ARAU ETA XEDAPENEN ARABERA ESKATU ERE:

70a) Ondasun higiezinen gaineko zerga, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.
70b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta oinordetza-zerga.
70c) BEZa eta sozietateen gaineko zerga.
70d) Ondarearen gaineko zerga eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

71 TOKI-ERAKUNDEEK TASAK EZARRI AHAL IZANGO DITUZTE ZERBITZU EDO JARDUERA HAUENGATIK:

71a) Lan-kontratudun langileak kontratatzeagatik.
71b) Sektore Publikoko Kontratuen Legeari lotutako kontratuak esleitzeagatik.
71c) Udaltzaingoaren isunak deuseztatzeagatik.
71d) Tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiteagatik.

72 TOKI-ERAKUNDEEK <u>EZIN IZANGO</u> DUTE TASARIK EZARRI, BESTEAK BESTE, ZERBITZU EDO JARDUERA HAUENGATIK:

72a) Iturri publikoetako ur-hornidurarengatik.
72b) Landa-zaintzagatik.
72c) Establezimenduen zaintza bereziagatik, establezimenduek beraiek eskatuta.
72d) Autotaxietarako eta alokairuko gainerako ibilgailuetarako lizentzia edo baimen administratiboak emateagatik.

73 LA AUTOLIQUIDACIÓN.

73a) Las Entidades Locales podrán ofrecer la posibilidad de autoliquidación, pero en ningún caso exigir ese régimen en la gestión de las tasas.
73b) Las Entidades Locales podrán exigir las tasas en régimen de autoliquidación.
73c) Las Entidades Locales podrán exigir las tasas en régimen de autoliquidación sólo a las personas jurídicas.
73d) La autoliquidación está expresamente excluida en Norma Foral 9/2005, de Haciendas Locales de Bizkaia.

74 SEGÚN LA NORMA FORAL 9/2005, DE HACIENDAS LOCALES DE BIZKAIA, CONSTITUYE EL HECHO IMPONIBLE DE LAS CONTRIBUCIONES ESPECIALES:

74a) La utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, la prestación de servicios o la realización de actividades en régimen de Derecho Público que se refieran, afecten o beneficien de modo particular al obligado tributario.
74b) Las adquisiciones de bienes y derechos por herencia, legado o cualquier otro título sucesor.
74c) La obtención de renta.
74d) La obtención por el obligado tributario de un beneficio o de un aumento de valor de sus bienes como consecuencia de la realización de obras públicas o del establecimiento o ampliación de servicios públicos.

75 VIGENCIA PRESUPUESTARIA EN LA NORMA FORAL 10/2003 PRESUPUESTARIA DE ENTIDADES LOCALES DE BIZKAIA.

75a) El ejercicio económico o presupuestario coincidirá con el año natural.
75b) El presupuesto tendrá una vigencia de bianual.
75c) El presupuesto tendrá una vigencia de un trienio prorrogable por un año más.
75d) El ejercicio económico o presupuestario coincidirá con una legislatura.

76 CADA UNO DE LOS PRESUPUESTOS DE LAS ENTIDADES LOCALES Y DE SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y CONSORCIOS DE BIZKAIA, EN SU CASO, CONTENDRÁ ENTRE OTROS EXTREMOS, UN ESTADO DE INGRESOS:

76a) Ciertos de los distintos derechos económicos a liquidar durante el ejercicio siguiente al que se va a presupuestar.
76b) De los distintos derechos económicos liquidados durante el ejercicio anterior.
76c) Estimativo de los distintos derechos económicos a liquidar durante el ejercicio.
76d) Estimativo de los distintos derechos económicos a liquidados durante los cuatro últimos ejercicios.

77 LOS ESTADOS DE GASTOS DE LOS PRESUPUESTOS DE LAS ENTIDADES LOCALES CONTENDRÁN:

77a) Los créditos de pago necesarios para atender los gastos susceptibles de ser reconocidos con cargo al ejercicio presupuestario y los créditos de compromiso destinados a hacer frente a las obligaciones jurídico-económicas que hayan de contraerse para la financiación de acciones cuya ejecución deba prolongarse a ejercicios presupuestarios posteriores.
77b) Sólo los créditos de pago necesarios para atender los gastos susceptibles de ser reconocidos con cargo al ejercicio presupuestario. Los créditos de compromiso se recogerán en los presupuestos de los ejercicios presupuestarios posteriores.
77c) Sólo los créditos de compromiso destinados a hacer frente a las obligaciones jurídico económicas que hayan de contraerse para la financiación de acciones cuya ejecución deba prolongarse a ejercicios presupuestarios posteriores. Los gastos a los que hay que hacer frente en el ejercicio no recogen en el presupuesto, se van efectuando y se anota el destino en la factura correspondiente.
77d) Los créditos de pago necesarios y cuya ejecución deba prolongarse a ejercicios presupuestarios posteriores.

73 AUTOLIKIDAZIOA.

73a) Toki-erakundeek autolikidazio aukera eskaini ahal izango dute, baina ezin izango dute araubide hori eskatu tasen kudeaketan.
73b) Toki-erakundeek autolikidazio araubidean eskatu ahal izango dituzte tasak.
73c) Toki-erakundeek autolikidazio araubidean eskatu ahal izango dituzte tasak, baina pertsona fisikoei bakarrik.
73d) Autolikidazioa espresuki dago baztertuta Bizkaiko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauan.

74 BIZKAIKO TOKI OGASUNEI BURUZKO 9/2005 FORU ARAUAREN ARABERA, KONTRIBUZIO BEREZIEN ZERGA-EGITATEA DA HONAKO HAU:

74a) Tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, eta zergapekoari bereziki erreferentzia egiten dioten, hari eragiten dioten edo haren onurarako diren zerbitzuak ematea edo jarduerak zuzenbide publikoko erregimenean egitea.
74b) Herentzia, legatu edo ondorengo beste edozein tituluren bidez ondasunak eta eskubideak eskuratzea.
74c) Errenta lortzea.
74d) Herri lanak egitearen edo zerbitzu publikoak ezarri nahiz gehitzearen ondorioz, zergapekoak onura edo ondasunen balioaren gehikuntza lortzea.

75 AURREKONTUAREN INDARRALDIA BIZKAIKO TOKI ERAKUNDEEN AURREKONTUEI BURUZKO 10/2003 FORU ARAUAREN ARABERA.

75a) Ekitaldi ekonomikoa edo aurrekontuena urte naturalarekin bat etorriko da.
75b) Aurrekontuak bi urteko indarraldia izango du.
75c) Aurrekontuak hirurteko bateko indarraldia izango du, eta beste urte betez luzatu ahal izango da.
75d) Ekitaldi ekonomikoa edo aurrekontuena legegintzaldi batekin bat etorriko da.

76 BIZKAIKO TOKI-ERAKUNDEEN ETA, HALA DAGOKIONEAN, BERAIEN ORGANISMO AUTONOMOEN ETA PARTZUERGOEN AURREKONTU BAKOITZAK SARREREN EGOERA-ORRI BAT IZANGO DU, BESTEAK BESTE:

76a) Aurrekontua egingo den ekitaldiaren hurrengoan likidatu beharreko zenbait eskubide ekonomikoen sarreren egoera-orria.
76b) Aurreko ekitaldian likidatutako eskubide ekonomikoen sarreren egoera-orria.
76c) Ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubide ekonomikoak zenbatesten dituen sarreren egoera-orria.
76d) Azken lau ekitaldietan likidatutako eskubide ekonomikoak zenbatesten dituen sarreren egoera-orria.

77 TOKI-ERAKUNDEEN AURREKONTUETAKO GASTUEN EGOERA-ORRIEK HONAKO HAUEK IZANGO DITUZTE:

77a) Aurrekontu ekitaldiaren kargura aintzatetsi ahal diren gastuei aurre egiteko behar diren ordainketa kredituak eta hainbat aurrekontu ekitalditan luzatuko diren ekintzak finantzatzeko hartu behar diren betebehar juridiko-ekonomikoei aurre egiteko konpromiso-kredituak,
77b) Aurrekontu ekitaldiaren kargura aintzatetsi ahal diren gastuei aurre egiteko behar diren ordainketa kredituak, besterik ez. Konpromiso-kredituak hurrengo aurrekontu-ekitaldietako aurrekontuetan jasoko dira.
77c) Hainbat aurrekontu ekitalditan luzatuko diren ekintzak finantzatzeko hartu behar diren betebehar juridiko-ekonomikoei aurre egiteko konpromiso-kredituak, besterik ez. Ekitaldian aurre egin beharreko gastuak ez dira aurrekontuan jasotzen, gastuak egiten dira eta xedea dagokion fakturan idazten da.
77d) Hainbat aurrekontu ekitalditan luzatuko diren eta beharrezkoak diren ordainketa-kredituak.

78 EL DESTINO DE LOS CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS

78a) Los créditos presupuestarios se destinarán exclusivamente a la finalidad específica para la cual hayan sido autorizados
78b) Los créditos presupuestarios se destinarán a cualquier finalidad siempre que sea de interés público.
78c) Los créditos presupuestarios, una vez consignados en los presupuestos, se destinarán a cualquier finalidad siempre que así lo autorice el titular del órgano que lo tiene asignado.
78d) Los créditos presupuestarios, una vez consignado en los presupuestos, se podrán destinar a cualquiera de las finalidades que se contemplen en los propios presupuestos, siempre que no superen la cuantía establecida.

79 LOS CRÉDITOS DE COMPROMISO.

79a) El estado de créditos de compromiso indicará la cuantía para el primer ejercicio y la cuantía aproximada para el resto de los ejercicios previstos para su ejecución.
79b) El estado de créditos de compromiso indicará para cada uno de ellos su cuantía total y los ejercicios previstos para su ejecución.
79c) El estado de créditos de compromiso indicará una cuantía aproximada para cada uno de los ejercicios previstos para su ejecución.
79d) El estado de créditos en ningún caso podrá contemplar créditos de compromiso para otros ejercicios posteriores.

80 RECIBIRÁN LA CALIFICACIÓN DE AMPLIABLES:

80a) Aquellos créditos de pago que, teniendo en principio carácter limitativo, su cuantía pueda ser incrementada, previo cumplimiento de las formalidades reglamentariamente establecidas o que se establezcan.
80b) Aquellos destinados para atender las insuficiencias en las dotaciones de otros créditos de pago o para hacer frente a nuevas necesidades para las que no exista dotación.
80c) Los créditos de pago necesarios para hacer frente a las obligaciones que se deriven de la percepción de fondos de otros Entes Públicos para la ejecución de proyectos en materias cuya competencia no corresponda a las Entidades locales
80d) Aquellos gastos de carácter plurianual que puedan comprometerse durante el ejercicio y su aprobación autorizará a la formalización de los mismos en las condiciones establecidas

PREGUNTAS DE RESERVA

81 SEGÚN LA CONSTITUCIÓN DE 1978 LA BANDERA DE ESPAÑA ESTÁ FORMADA POR:

81a) Tres franjas horizontales, amarilla, roja y amarilla, siendo la roja de doble anchura que cada una de las amarillas.
81b) Cuatro franjas horizontales, roja, amarilla, roja y amarilla, siendo cada una de las amarillas de doble anchura que cada una de las rojas.
81c) Tres franjas verticales, roja, amarilla y roja, siendo la amarilla de la misma anchura de que cada una de las rojas.
81d) Tres franjas horizontales, roja, amarilla y roja, siendo la amarilla de doble anchura que cada una de las rojas.

78 AURREKONTU-KREDITUEN XEDEA.

78a) Aurrekontu-kredituak baimendutako helburu zehatzerako baino ez dira erabiliko.
78b) Aurrekontu-kredituak edozein helburutarako erabiliko dira, betiere interes publikokoa bada.
78c) Aurrekontu-kredituak, aurrekontuetan kontsignatu ondoren, edozein helburutarako erabiliko dira, betiere aurrekontua esleituta duen organoko titularrak horretarako baimena ematen badu.
78d) Aurrekontu-kredituak, aurrekontuetan kontsignatu ondoren, aurrekontuetan aurreikusitako edozein helburutarako erabili ahal izango dira, betiere ezarritako zenbatekoa gainditzen ez badute.

79 KONPROMISO-KREDITUAK.

79a) Konpromiso-kredituen egoera-orriak lehenengo ekitaldirako zenbatekoa eta gauzatzeko aurreikusitako gainerako ekitaldietarako gutxi gorabeherako zenbatekoa adieraziko ditu.
79b) Konpromiso-kredituen egoera-orriak, horietako bakoitzerako, zenbateko osoa eta gauzatzeko aurreikusitako ekitaldiak adieraziko ditu.
79c) Konpromiso-kredituen egoera-orriak, gauzatzeko gutxi gorabeherako zenbateko bat adieraziko du ekitaldi bakoitzerako.
79d) Kredituen egoera-orriak ezin izango du inola ere jaso hurrengo ekitaldietarako konpromiso-krediturik.

80 ZABALGARRITZAT JOKO DIRA:

80a) Hasieran muga izaerakoak izanik, araubidez ezarritako edo ezarriko diren formalitateak bete ondoren, zenbatekoa gehi dezaketen ordainketa-kredituak.
80b) Beste ordainketa-kreditu batzuen zuzkiduren urritasunei erantzuteko edo zuzkidurarik ez duten premia berriei aurre egiteko erabiltzen direnak.
80c) Toki-erakundeen eskumenekoak ez diren arloetako proiektuak gauzatzeko beste erakunde publiko batzuetatik funtsak jasotzetik eratorritako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak diren ordainketa-kredituak.
80d) Ekitaldian zehar konprometitu daitezkeen urte anitzeko gastuak, eta horiek onartzeak ezarritako baldintzetan formalizatzeko baimena emango du.

ORDEZKO GALDERAK

81 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA, NOLAKOA DA ESPAINIAKO BANDERA?

81a) Hiru lerro horizontalek osatzen dute, eta horien koloreak horia, gorria eta horia dira, gorriaren zabalera bi horiren adinakoa izanik.
81b) Lau lerro horizontalek osatzen dute, eta horien koloreak gorria, horia, gorria eta horia dira, hori bakoitzaren zabalera bi gorriren adinakoa izanik.
81c) Hiru lerro bertikalek osatzen dute, eta horien koloreak gorria, horia eta gorria dira, horia gorri bakoitzaren zabalera berekoa izanik.
81d) Hiru lerro horizontalek osatzen dute, eta horien koloreak gorria, horia eta gorria dira, horiaren zabalera bi gorriren adinakoa izanik.

82 LA CELEBRACIÓN DE CONVENIOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO CON OTRAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS SEGÚN EL ESTATUTO DE AUTONOMÍA.

82a) La Comunidad Autónoma en ningún caso podrá celebrar convenios con otras Comunidades Autónomas para la gestión y prestación de servicios propios de la exclusiva competencia de las mismas.

82b) La Comunidad Autónoma en ningún caso podrá celebrar convenios con otras Comunidades Autónomas para la gestión y prestación de servicios propios salvo que cuente con la autorización del Estado.

82c) La Comunidad Autónoma en ningún caso podrá celebrar convenios con otras Comunidades Autónomas para la gestión y prestación de servicios propios salvo que cuente con la Autorización del Estado y, antes de su entrada en vigor, deberá ser comunicada a la Unión Europea.

82d) La Comunidad Autónoma podrá celebrar convenios con otras Comunidades Autónomas para la gestión y prestación de servicios propios de la exclusiva competencia de las mismas. La celebración de los citados convenios, antes de su entrada en vigor, deberá ser comunicada a las Cortes Generales.

83 LA ACUMULACIÓN DE LOS PROCEDIMIENTOS ADMINISTRATIVOS.

83a) El órgano administrativo que inicie o tramite un procedimiento podrá disponer su acumulación a otros con los que guarde identidad sustancial o íntima conexión, siempre que sea el mismo órgano quien deba tramitar y resolver el procedimiento.

83b) Cualquier órgano administrativo podrá disponer la acumulación de procedimientos administrativos aunque no guarden identidad sustancial o íntima conexión entre ellos.

83c) Cualquier órgano administrativo podrá disponer la acumulación de procedimientos administrativos aunque no guarde identidad sustancial o íntima conexión, siempre que sea el mismo órgano quien deba tramitar y resolver el procedimiento.

83d) La acumulación de expedientes administrativos está expresamente prohibida en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

84 EL ERROR O LA AUSENCIA DE LA CALIFICACIÓN DEL RECURSO POR PARTE DEL RECURRENTE:

84a) Impide su tramitación y la de cualquier otro recurso administrativo o contencioso administrativo.

84b) Supondrá la renuncia a recurrir convirtiendo el acto en firme.

84c) Supondrá la inadmisión del recurso presentado aunque se deduzca su verdadero carácter.

84d) No será obstáculo para su tramitación, siempre que se deduzca su verdadero carácter.

85 LAS SANCIONES ADMINISTRATIVAS:

85a) Podrán implicar privación de libertad si son muy graves o si se aplican en su máxima graduación.

85b) Sean o no de naturaleza pecuniaria, en ningún caso podrán implicar, directa o subsidiariamente, privación de libertad.

85c) Podrán implicar privación de libertad si fueran reiteradas.

85d) Podrán implicar privación de libertad siempre que sean motivadas.

82 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEN ARTEKO HITZARMENAK EGITEA, AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA.

82a) Autonomia Erkidegoak ezin izango ditu, inola ere, hitzarmenak egin beste autonomia-erkidegoekin beren bakarreko eskumeneko zerbitzu propioak kudeatu eta emateko.

82b) Autonomia Erkidegoak ezin izango ditu, inola ere, hitzarmenak egin beste autonomia-erkidegoekin zerbitzu propioak kudeatu eta emateko, baldin eta Estatuaren baimena ez badauka.

82c) Autonomia Erkidegoak ezin izango ditu, inola ere, hitzarmenak egin beste autonomia-erkidegoekin zerbitzu propioak kudeatu eta emateko, baldin eta Estatuaren baimena ez badauka. Eta indarrean sartu aurretik, Europar Batasunari jakinarazi behar zaio

82d) Autonomia Erkidegoak hitzarmenak egin ditzake beste autonomia-erkidegoekin beren bakarreko eskumeneko zerbitzu propioak kudeatu eta emateko. Esandako hitzarmen horiek egiteko, Gorte Nagusiei jakinarazi behar zaie indarrean sartu aurretik.

83 ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK METATZEA.

83a) Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak erabaki dezake prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, baldin eta organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

83b) Edozein administrazio-organok erabaki dezake administrazio-prozedurak metatzea, nahiz eta oinarri bera edo lotura estua ez izan euren artean.

83c) Edozein administrazio-organok erabaki dezake administrazio-prozedurak metatzea, nahiz eta oinarri bera edo lotura estua ez izan, baldin eta organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

83d) Administrazio-espedienteak metatzea espresuki dago debekatuta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean.

84 ERREKURTSO-JARTZAILEAK ERREKURTSOARI OKERREKO KALIFIKAZIOA JARTZEA, EDO KALIFIKAZIORIK EZ JARTZEA:

84a) Ezinezko egingo du errekurtso hori nahiz beste edozein administrazio-errekurtso edo administrazioarekiko auzi-errekurtso izapidetzea.

84b) Errekurtsoa jartzeari uko egitea ekarriko du, egintza irmo bihurtuz.

84c) Aurkeztutako errekurtsoa ez onartzea ekarriko du, nahiz eta garbi badago ere bere benetako izaera.

84d) Ez da eragozpen izango errekurtsoa izapidetzeko, garbi badago behintzat zein den bere benetako izaera.

85 ADMINISTRAZIO-ZEHAPENEK:

85a) Askatasun-gabetzea ekar dezakete, baldin eta oso larriak badira edo graduazio gorenean aplikatzen badira.

85b) Diruzkoak izan ala ez, ez dute inola ere ekarriko, zuzenean edo subsidiarioki, askatasun-gabetzea.

85c) Askatasun-gabetzea ekar dezakete, behin eta berriz gertatzen badira.

85d) Askatasun-gabetzea ekar dezakete, betiere arrazoituta badaude.